








## AJEDREZA EUSKERAZ



	Errege, edo E. erderaz	El Rey.
	Andrea, edo A.	» La Dama (reina).
	Torrea, edo T.	» La Torre.
	Gudaria, edo G.	» El Alfil.
	Zaldia, edo Z.	» El Caballo.
	Oiñezkoa, edo O.	» El Peon

## ONDO IOKATUTEKO LEGE EDO ARAUAK (1).

## LENENGOA

Laukidiak iokalariak erara ipiñi bear dabez, au da, euren eskuma-aldean beeko zokondoko laukitxu zumi bat eukiteko eran. Laukidia tšarto ipiñita egonezkero, dakusanak, *laugarren eskualdia* iokatu baiño lenago, iokoa barriro asi eragiteko eskubidea dauko.

## BIGARRENA

Geiak tšarto ipiñita egonezkero, dakusanak barriro iokoa asi eragin daike, *laugarren eskualdia iokatu-aurrean*; gero ez.

## IKUGARRENA

Nai edozein Gei nai Oiñezkoren bat aztuezkero, arerioaren aukeran egongo da iokoa barriro astea edo Gei aztua ipinten istea.

## LAUGARRENA

Obaari edo goi-beiren bat emonezkero eta asieran obaari au aztu izan balitz, kaltetuaren eskubidean egongo da iokoa barriro astea edo iarraitutea.

## BOSKARRENA

Urteiera Gei zuriari beti iagoke. Onetarako Gei onek lenengo iokoan nontzat izan egingo da, ta gero sandšaka

(1) Urrengo geian oartuko dira arau onetako berba barri ta gitsi oituak.

edo tšandaka eukiko dabez iokalariak. Gei baten obaaria emon dabenak, Gei zuriak iokatuteko eskubidea dauko, urteteko bere bai; onen kontrako egiunerik edo alkar adituterik egonezik.

## SEIGARRENA

Nok lenengo urten iakinezik, Gei zuriak nontzat izan egingo da. Arerioari Gei zuriak emoteak, lenengo iokoan urteteko eskubidea beragaz daroa.

## ZAZPIGARRENA

Oiñezko baten obaaria emoten danean, beti izan oi da (E. G. O.) Errege-Gudariaren Oiñezkoa. Eskualdi batzun obaaria artu dabena, eskualdi onetan laukidi-erditik aurrera ezta ioan al izango.

## ZORTZIGARRENA

Nai Gei nai Oiñezko bati ikutu dautsanak, beragaz eskualdi bat iokatu bear dau, ondo ipinteko dala arerioari lenago esan ezpadautso.

## BEDERATZIGARRENA

Geia eskuan daukanartean, edonun ipiñi al izango dau, egoan lekuan ez eze.

## AMARGARRENA

Aurretik oartu barik, arerioaren Gei bati ikutu dautsanari besteak artu eragin lekio, arauz edo legeaz al bada: bestela Errege lokatu edo erabiñi bear izango dau. Ez bata ez bestea egin ezin bada, utsa edo bakoa, ondoren barik edo ikutu ezpaleutso legeaz, geldituko da.

## AMAIKAGARRENA

Norberena barik Gei bat uste uste barik erabiñi dabenak, arerioaren aukeran iru eskualdi onetatik bat egin bear izango dau: 1.º Gei au norberen bategaz (beste artu daikenganaz) artu; 2.º ipiñiriko lekuan itši; 3.º lenengoz egoan laukitšura eroan, baiña onetarako Errege lokatuko dau, moltsoan gelditu-ezik.

## AMABIGARRENA

Arerioan Gei bat arauga edo legeaz kontra artu dabenak, arauz edo legeaz artu bear izango dau; ta au al izan ezik, Gei ikutua iokatu bear izango dau.

## AMAIRUGARRENA

Norberen Gei bat norberen beste bategaz artu dabenak, bata edo bestea iokatu bear izango dau, arerioaren aukeran.

(Iarraituko da.)

## ZORTZIKOA

Diñostazu Katalin  
zer dan zortzikoa;  
da zortzi oiñen ganean  
dagoan bertsoa.

Zortziko bertsoak dau  
kantea laguna;  
eta onek dantza eder bat:  
guztia euskalduna.

E. M. A.<sup>k</sup>